



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

OSASUN ZIENTZIAK

**Osasun Zientzietako ikasleen
adinkeria eta honekin
erlazionatzen diren faktoreak**

*Batirtze San Martin Gamboa,
Ana Belén Fraile Bermúdez
eta Idoia Zarrasquin Arizaga*

129-136 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.04.15>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Osasun Zientzietako ikasleen adinkeria eta honekin erlazionatzen diren faktoreak

Batirtze San Martin Gamboa¹, Ana Belén Fraile Bermúdez¹, Idoia Zarrasquin Arizaga²
*Erizaintza I Departamentua, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Euskal Herriko
Unibertsitatea UPV/EHU. Sarriena, Leioa¹*

*Erizaintza II Departamentua, Medikuntza eta Erizaintzako Fakultatea, Euskal Herriko
Unibertsitatea UPV/EHU. Begiristain pasalekua, 105, Donostia²*
Batirtze.sanmartin@ehu.eus

Laburpena

Gaur egun aldaketa demografiko garrantzitsu bat bizitzen ari gara, biztanleria gero eta zaharragoa da. Eraldaketa sozial honek agerian uzten du biztanleriak duen adinkeria pertsona nagusiekiko. Adinkeria hainbat eremutan aztertu da, unibertsitate ikasleetan eta baita osasun arloko profesionalean. Bi eremu hauetan egindako ikerlanek agerian uzten dute unibertsitateko ikasleek, osasun zientzietako ikasleak barne, eta baita osasun profesionalek adinkeria izan dezaketela eta hau faktore desberdinekin erlazionatuta egon daitekeela.

Hitz gakoak: Osasun zientzietako ikasleak, adinkeria, aldagai soziodemografikoak, Mediterranear dieta, jarduera fisikoa, estereotipo negatiboak, aurreiritziak

Abstract

We are currently experiencing a major demographic change, the population is getting older and older. This social transformation highlights the ageism of the population with respect to the elderly. The study of ageism has been carried out in different areas, both among university students and health professionals. The studies carried out in these two fields show that university students, including health science students, and also health professionals may have ageism, and this may be related to different factors.

Keywords: Health sciences students, ageism, socio-demographic variables, Mediterranean diet, physical exercise, negative stereotypes, prejudice

1. Sarrera eta motibazioa

Munduko biztanleria gero eta zaharragoa da, eta gero eta zaharragoak diren adinetara heltzen ari dira pertsonak (NBE, 2019). Egoera hau bizi itxaropenaren handitzearen, biziraupenaren hobekuntzaren, ugalkortasunaren murrizketaren prozesu teknologiko eta farmakologikoen eta migrazioaren ondorioz ematen da (Dong et al., 2016; Kaplan Serin eta Tülüce, 2021).

Mundu-mailan, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) egindako azterlanean, “Munduko biztanleriaren ikuspegia/aurresatea, 2022” bertan argitaratutako datuen arabera, 2022. urtean 65 urte edo gehiagoko biztanleria 771 milioi biztanlekoa izan da, eta aurreikuspenen arabera, kopuru hori handitu egingo da 2050. urterako, 1600 milioi biztanlera iritsiz (NBE, 2022).

Estatu mailan lurraldeen zahartzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) dela autonomia erkidegorik zahartuenetariko bat, eta 65 urtetik gorako pertsonen proportzioak % 21a gainditzen duela (Pérez Díaz et al., 2022). Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) argitaratutako 2022ko adinekoen estatistika egoeraren txostenaren arabera, Euskadin 65 urtetik gorako biztanleriak % 30a gainditu du, Bizkaiko lurralde historikoa zaharrena izanik (Eustat, 2022).

Aldaketa demografiko honek agerian usten du gizarteak izan dezakeen adinkeria. 1969. urtean Robert Butler mediku gerontologo eta psikiatra estatubatuarrek pertsonen aurkako aurreiritzien, estereotipoen eta diskriminazioaren multzoa bezala definitu zuen adinkeria (Butler, 1969). Definizio hau kontutan izanda, adinkeria elkarren artean konektatuta dauden hiru dimentsioz osatuta dagoela esan daiteke (Marcos, 2007): lehen dimentsioa kognitiboa da, zerbaiti buruzko pentsamendu, ideia edo sinesmenez osatua dagoena. Honetan xedea pertsona talde bat denean estereotipoaz hitzegiten dugu. Bigarren dimentsioa afektiboa da gizarte talde edo egoera baten

aurrean agertzen diren sentimendu edo zirrarez, hau da aurreiritziz osatua dagoena. Azkenik, jokabide dimentsioa dago, non idea eta egoera emozionalaren ondoriozko jokabideak, diskriminazioa osatzen duena.

Garrantzitsua da osasun langileek zahartzeari eta adinekoei buruz duten pertzepzioa zein den jakitea, haien esku baitago biztanleriak arreta egokia lortzea eta bereziki, adinekoak (Rello et al., 2018). Adinkeriak, praktika profesionalean praktika diskriminatzaileak sorrarazten ditu (Losada, 2004). Osasun-arloko profesionalen jarrera edadistek ondorio negatiboak dituzte adinekoen osasunean; hala nola pazientearekin eta familiarekin osasun-komunikazio desegokia izatea, infradiagnostikoa izatea, gutxiegi tratatzea, ikerketatik baztertzea eta osasun-zerbitzuetarako eta tratamendurako sarbidea debekatzea (Chang et al., 2020; Franco et al., 2010; Kagan eta Melendez-Torres, 2015; Makris et al., 2015). Azken hamarkada honetan, osasunaren arloko profesionalen artean estereotipo negatiboak aztertu dituzte hainbat lanek (De Araújo et al., 2023; Rello et al., 2018). Osasun arloko profesionalei buruzko azterlanetan, agerian geratu da ez dagoela ezagutza nahikorik zahartze prozesuari buruz eta horren ondorioz oraindik badaudela adinkerirako joera dutenak. Adinekoak izateagatik soilik patologia adinaren berezko zerbait dela justifikatzeko joera dutenak eta adinekoak behar bezala ez diagnostikatzeko eta tratatzeko joera dutenak (Sarabia Cobo eta Castanedo Pfeiffer, 2015).

Funtsezkoa da ere osasun zientzietako unibertsitate-ikasleek zahartzaroari eta zahartzeari buruz duten ikuspegia eta pertzepzioa ezagutzeak eta hauek zein faktoreekin dauden erlazionatuta, etorkizunean haiek izango baitira adinekoak zaintzeko zutabeetako bat. Zahartzaroari buruzko estereotipo negatiboak osasun zientzietako nahiz beste arlo batzuetako unibertsitate ikasleetan egindako azterlanetan ikusi dira. Hauetako ikerlan batean estereotipo negatiboen erdi maila bat hauteman da, bai osasun-arloko ikasleengan, bai beste diziplina batzuetako ikasleengan, haien artean estatistikoki alde adierazgarriarik hauteman gabe (Aristizábal et al., 2009). Osasun zientzietako ikasleak aztertzeraz mugatu diren ikerketek erakutsi dute ikasleek zahartzaroari buruzko estereotipo negatiboak izan ditzaketela (Duran-Badillo et al., 2016; Rello et al., 2018; Sequeira Daza eta Silva Jiménez, 2016).

Estereotipo negatiboek eta aurreiritziek bizi ohitura osasungarriekin lotura izan dezaketela pentsa genezake, izan ere bizitza osoan bizi ohitura osasungarriak (jarduera fisikoa eta Mediterranear dietari atxikidura) izateak pertsona baten osasunaren sustatzaile eta babesle gisa jokatzeko duela jakina da eta horrek zahartzaroarekiko pertzepzioa positiboagoa izatea eragin dezake. Pertsona horren funtzionaltasuna hobea izango da eta bere autopertzepzioan ere eragina izan lezake, ikuspegi positibo bat izanik bizi zikloko edozein arotan. Bizi ohitura osasuntsuak dituen pertsona batek zahartze osasuntsuago eta aktiboa izateko probabilitate handiagoa izango du gainera (Cedillo-Ramírez et al., 2016; Irazusta-Astiazaran et al., 2005).

Horretaz gain, osasun zientzietako ikasleek adinekoekin izandako kontaktu motak eta honen iraupenak, baita hauen haurtzaroko ikuspegiak eta gaur egungoak, adinkeriarekin erlazioa ere izan dezaketela pentsa genezake.

Aurretik aipatutako guztia kontutan izanda, ezinbestekoa da osasun zientzietako ikasleek adinkeria duten edo ez ezagutzea eta izanez gero, estereotipo negatibo eta aurreiritziekin erlazionatzen diren faktoreak zeintzuk diren identifikatzea.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Ikerlan honen helburu nagusiak honako hauek dira:

- 1) Erizaintza, Medikuntza eta Fisioterapiako ikasleen zahartzeari buruzko estereotipo negatibo eta aurreiritzien presentzia aztertzea.
- 2) Zahartzeari buruzko estereotipo negatiboek zein aurreiritziek aldagai soziodemografikoekin, adinekoekin kontaktua eta adinekoekiko ikuspegiarekin eta bizi ohiturekin duten erlazioa aztertzea.

3. Ikerketaren muina

3.1 Laginaren deskribapena

Ikerlan hau Bizkaiko Campuseko Leioa/Erandioko gunearen barnean, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Medikuntza eta Erizaintzako Fakultatean egindakoa da, 2019/2020 eta 2020/2021 ikasturte akademikoetan. Helsinkiko adierazpena oinarri hartuta eta UPV/EHUko Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordearen onespena jaso ondoren garatu zen (M10/2019/143MR1 kodearekin).

Aurretik deskribatutako helburuari erantzuna emateko, kohorte azterketa prospektibo bat diseinatu zen, hiru kohortekin. Lehenengo kohortea Erizaintza gradu 2. mailako 257 ikasleek osatu zuten. Bigarren kohortea Medikuntza 2. mailako 351 ikasleek eta hirugarren kohortea Fisioterapiako 3. mailako 85 ikasleek, guztira 693 ikasleek parte hartu zuten. Parte hartzaile guztiek barne irizpide hauek bete behar zituzten: ikasleak UPV/EHUko osasun zientzietako ikasleak izan behar ziren Leioako Campusean, Erizaintzako eta Medikuntzako 2. mailako eta Fisioterapiako 3. mailako ikasleak izan behar ziren eta azkenik borondatez baimen informatua sinatuta izan behar zuten.

3.2 Materiala eta metodoak

Ikerketarako beharrezkoa zen informazio batzeko metodo desberdinak erabili ziren. Aldagai soziodemografikoen datu bilketa egiteko 2017. urtean argitaratutako Encuesta Nacional de Salud de España (ENSE) galdetegia oinarritzat hartuta, galdetegi berri bat sortu zen, non, parte hartzaileen adina, sexua, egoera zibila, unibertsitaterako sarbidea nolako izan zen, norekin bizi den, familia-unitatean zenbat kide dituen, erlijio-sinesmenik baduen eta gurasoen ikasketei buruz galdetu zitzairen. Adinekoei buruzko kontaktuaren eta ikuspegiaren balorazioa egiteko literatura zientifikoan aurkitzen diren bi ikerlan oinarritzat hartu ziren (Menéndez Álvarez-Dardet et al., 2016; Rello et al., 2018). Ikerlan honetan sortutako galdetegiak faktore hauei buruzko informazioa lortzeko hainbat datu bildu zituen, alde batetik 65 urtetik gorako pertsonekin harremanetan jartzeko maiztasuna. Beste alde batetik, mendekotasuna duten eta menpekotasun gabeko 65 urtetik gorako pertsonekin harremanetan egoteko maiztasuna, azken urtean eta azken hamar urteetan. Ikuspegiari dagokionez, adinekoeki gaur egungo ikuspegiari eta haurtzaroko ikuspegiari buruz ere galdetu zitzairen. Jarraian osasun zientzietako ikasleek zituzten bizi-ohituren datu bilketa egiteko International Physical Activity Questionnaire (IPAQ) galdetegia oinarritzat hartu zen (Craig et al., 2003). Ikerlan honetan aldagai honi buruzko informazioa biltzeko 7 egunetan egin zuten jarduera fisiko bizi eta moderatuei buruz galdetu zitzairen, baita hauek egiteko zuten, maiztasunari buruz ere. Elikadura ohituren azterketa egiteko osasun zientzietako ikasleek Mediterranear dietarekiko atxikidura ezagutzeko Cuestionario de Adherencia a la Dieta Mediterránea balidatutako galdetegia erabili zen (Schröder et al., 2011). Azkenik osasun zientzietako ikasleek adinkeria zuten edo ez jakiteko, estereotipo negatiboak aztertzeko Cuestionario de Estereotipos Negativos hacia la Vejez (CENVE) baliozkotutako galdetegia erabili zen (Blanca Mena et al., 2005). CENVE galdetegia hispaniar hizkuntzako herrialdeetan gehien erabiltzen den tresna da. Aurreiritziak aztertzeko berriz, Escala de Diferencial Semántico del Envejecimiento (DSE) baliozkotutako galdetegia erabili zen (Villar Posada, 1997).

3.3 Datuen analisisia

Analisi estatistikoa IBM SPSS (SPSS Inc., Chicago, IL) programaren 26. bertsioarekin egin zen. Aldagai kategorikoak, maiztasun absolutu (n) eta ehunekoen bidez (%) adierazi ziren. Aldagai kuantitatiboak berriz, batezbestekoak eta desbideratze estandarrek ($Bb \pm De$) erabiliz deskribatu ziren. Aldagai kuantitatibo guztien normaltasuna aztertzeko, Kolmogorov-Smirnov testa erabili zen. Aldagai guztiek ez zuten normaltasun-irizpidea betetzen, beraz, parametrikoa ez den estatistika erabili zen.

Analisi estatistikoari dagokionez, bi talderen batezbestekoak alderatzeko, U de Mann-Whitney proba erabili zen eta, bi talde baino gehiago izanez gero, Kruskal-Wallis proba jorratu zen. Bi aldagai kategorikoen arteko asoziazioa aztertzeko, Txi karratu (x^2) testarekin egin zen azterketa. Aldagaiak kuantitatiboak zirenean Spearman korrelazioak erabili ziren. Esangura estatistikoa $p < 0,05$ an finkatu zen. Esplorazio-azterketa bat egin zen CENVE, DSE (mendeko aldagaiak) eta gainerako aldagaien artean. Erlazio estatistiko bat islatu zuten aldagai guztiak ($p < 0,1$) bi eredu lineal orokortuetan integratu ziren. Lehen eredu orokortua sexuaren, adinaren eta graduaren arabera kontrolatu zen, eta bigarren eredu orokortuan analisia graduaren arabera burutu zen sexu eta adinaren arabera kontrolatuta. Aldagai anitzeko analisi horietan, esangura estatistikoa $p < 0,05$ an finkatu zen. Gainera, bi talde baino gehiago alderatu zirenean, Bonferroniaren korrelazioa egin zen, p balioa talde-kopuruari doituz.

3.4 Emaitzak

3.4.1 Osasun zientzietako ikasleen ezaugarri soziodemografikoak

Erizaintza, Medikuntza eta Fisioterapiako ikasleen gehiengoa emakumezkoa zen (% 76), hauen adinaren batezbestekoa $20,1 \pm 3,8$ urtekoa izanik. Hauen gehiengoa bere guraso eta nebarrebeekin bizi ziren (% 76,3), beraien amek (% 60) eta aitek (% 45,3) zuten ikasketa maila goi mailakoa zen eta ez fededunak ziren (% 63).

Adineko pertsonekin izandako kontaktu motari dagokionez, gehiengoak (% 65,1) izandako kontaktu mota familiakoa izan zela adierazi zuten. Adineko pertsonaren menpekotasuna eta kontaktuaren maiztasunari dagokionez, ikasleen gehiengoek (% 37,5) menpekotasun gabeko adineko pertsona batekin azken urtean izandako kontaktuaren maiztasuna hilean behinekoa izan zela eta azken hamar urteetan izandako kontaktua 5-7 egun bitartekoa izan zela adierazi zuen % 26,1ak. Aldiz, ikasleek menpekotasun zuen adineko pertsona batekin azken urtean eta azken hamar urteetan ez zutela kontakturik izan adierazi zuten, % 43,8 eta % 29,4ak hurrenez hurren.

Bizi ohiturei dagokionez, ikasleen gehiengoak (% 49,1) jarduera fisikoa modu jarraitu batean egiten zuten; hain zuzen ere, jarduera fisiko moderatuta eta bizia asteen hiru egun arte egiten zutela adierazi zuen ikasleen % 54 eta % 49,1ak. Hauen gehiengoak Mediterranear dietari atxikidura egokia zuen, 9ko batezbesteko puntuazioa lortu bait zuten Cuestionario de Adherencia a la Dieta Mediterranea galdetegian.

3.4.2 Osasun zientzietako ikasleetan estereotipo negatibo eta aurreiritzien presentziaren azterketa

Estereotipo negatiboak neurtzeko CENVE galdetegia erabili zen, non zenbat eta puntuazio altuago izan orduan eta estereotipo negatiboen presentzia adierazten zuen. Osasun zientzietako ikasle hauek galdetegian lortutako puntuazioa $32,5 \pm 6$ koa izan zen eta honek adierazten zuena zen ikasle hauek estereotipo negatiboen presentzia txikia zutela. Aldagai bera graduka aztertzerakoan ikusi zen estereotipo negatibo gehien zituztenak Medikuntza graduako ikasleak zirela $32,9 \pm 6,2$ ko puntuazio batekin.

Aurreiritziei dagokionez, kontutan izanda DSE galdetegian zenbat eta puntuazioa altuagoa izan orduan eta aurreiritzi gutxiago daudela adierazten zuela, osasun zientzietako ikasle hauek DSE galdetegian lortutako batezbestekoaren puntuazioa $75,1 \pm 14,7$ koa izan zen eta honek aurreiritzien presentzia txikia adierazten zuen. Aurreiritziak graduka aztertzerakoan ikusi zen aurreiritzirik gutxien zituzten ikasleak Fisioterapia graduakoa zirela $76,9 \pm 13,8$ ko batezbesteko batekin **1. taulan** ikus daitekeen bezala.

1. taula. Zahartzearekiko estereotipo negatibo (CENVE) eta aurreiritzien (DSE) analisia osasun zientzietako ikasleetan

	Guztiak n (693)	Erizaintza n (257)	Medikuntza n (351)	Fisioterapia n (85)	
	Bb±De	Bb±De	Bb±De	Bb±De	p
CENVE Totala	32,5±6,0	32,4±5,9	32,9±6,2	30,9±5,6	0,025
DSE Totala	75,1±14,7	75,1±14,1	74,8±15,4	76,9±13,8	0,479

Kruskal-Wallis froga graduen artean

3.4.3 Zahartzearekiko estereotipo negatiboekin eta aurreiritziekin lotutako faktoreak osasun zientzietako ikasleetan

3.4.3.1 Estereotipo negatiboekin erlazionatzen diren faktoreak

Atal honetako emaitzak 3 alderditan banatu ziren: eremu soziodemografikoko aldagaiak, bizi ohituren aldagaiak eta kontaktu eta ikuspegiarekin erlazionatuta zeuden aldagaiak **2. taulan** ikus daitekeen moduan.

Eremu soziodemografikoari dagokionez, ikasleek ikasten zuten **graduan**, Fisioterapiako gradua erreferentziatzen hartuta ikus zitekeen bai Erizaintza graduak ($\beta=1,87$; $p=0,021$) eta Medikuntza graduak ($\beta=2,19$; $p=0,006$) Fisioterapia graduak baino estereotipo gehiago zituztela.

Bizi ohiturei dagokionez, **Jarduera fisiko moderatuaren** maiztasunean, hiru egun baino gehiago erreferentziatzen hartuta, ikus zitekeen, hiru egun arte jarduera fisiko moderatua egiten zuten ikasleak zirela estereotipo negatibo gehien zituztenak hiru egun baino gehiago eta ez zutenekin egiten alderatuta ($\beta=1,52$; $p=0,019$).

Kontaktuaren eta ikuspegiaren eremuari dagokionez, **kontaktu motan**, familia kontaktua, laneko kontaktua eta boluntariotza bitartezko kontaktua mantentzen zituzten ikasleak erreferentziatzen hartuta, laneko eta boluntariotza bitartezko kontaktua soilik mantentzen zutenak, familiako aukera bere baitan zutenak baino estereotipo gehiago zituzten modu esanguratsu batean ($\beta=3,77$; $p=0,024$). **Gaur egungo ikuspegian**, ikuspegi txarra erreferentziatzen hartuz, ikuspegi oso ona zuten ikasleak ($\beta=-5,62$; $p=0,003$) eta ikuspegi ona zutenak ($\beta=-3,96$; $p=0,030$) ikuspegi txarra zutenak baino estereotipo negatibo gutxiago zituzten modu adierazgarri batean.

2. taula. Zahartzearekiko estereotipo negatiboekin (CENVE) lotutako aldagaien azterketa osasun zientzietako ikasleetan

		β	% 95 KT		p
			BM	GM	
Eremu soziodemografiko					
Graduak	<i>Erizaintza</i>	1,87	0,28	3,46	0,021
	<i>Medikuntza</i>	2,19	0,61	3,76	0,006
	<i>Fisioterapia</i>	-	-	-	-
Bizi ohituren eremua					
Jarduera fisiko moderatua	<i>Ez dut egiten</i>	0,25	-1,30	1,80	0,705
	<i>3 egun arte</i>	1,52	0,25	2,81	0,019
	<i>3 egun baino gehiago</i>	-	-	-	-
Kontaktua eta ikuspegiaren eremua					
	<i>Familiakoa</i>	-0,06	-1,17	1,04	0,913

Adinekoekin kon-taktu mota	<i>Lana eta boluntari-otza</i>	3,77	0,49	7,05	0,024
	<i>Familiakoa, lanekoa eta boluntariotzakoa</i>	-	-	-	-
Gaur egungo ikuspegia	<i>Oso ona</i>	-5,62	-9,28	-1,96	0,003
	<i>Ona</i>	-3,96	-7,53	-0,38	0,030
	<i>Txarra</i>	-	-	-	-

β :koefizientea; KT:konfidantza tarte; BM:beheko muga; GM:goiko muga
Eredu lineal orokortua. Kontrol aldagaiak: sexua, adina eta gradua

3.4.3.2 Aurreiritziekin erlazionatzen diren faktoreak

Atal hau aurrekoa bezala hiru eremu desberdinetan banatuta aurkeztuko da (**3. taula**).

Eremu soziodemografikoari dagokionez ikusi zen, ikasleen **ikasturtea** aztertzerakoan, 2020-2021 ikasturtekoak erreferentziatzat hartuta 2019-2020 ikasturtean zeuden ikasleak aurreiritzi negatibo gehiago zituztela modu esanguratsu batean ($\beta=-3,70$; $p=0,003$). **Graduan** Fisioterapiako ikasleak erreferentzia moduan hartuta, bai Erizaintza graduako ikasleak ($\beta=-3,94$; $p=0,046$) zein Medikuntzakoak ($\beta=-5,25$; $p=0,008$) Fisioterapiako ikasleak baino aurreiritzi gehiago zituzten modu adierazgarri batean.

Bizi ohiturei dagokionez, aldagai batek ere ez zuen erlaziorik izan aurreiritziekin.

Kontaktuaren eta ikuspegiaren eremuari dagokionez, **haurtzaroko ikuspegian**, ikuspegi txarra zuten ikasleak erreferentziatzat hartuz, ikuspegi oso ona zuten ikasleak ($\beta=9,42$; $p=0,022$) ikuspegi txarra zutenak baino aurreiritzi gutxiago zituztela modu adierazgarri batean (**3. Taula**).

3. taula. DSEari lotutako aldagaien azterketa osasun zientzietako ikasleetan

		β	% 95 KT		p
			BM	GM	
Eremu soziodemografikoa					
Ikasturtea	<i>2019-2020</i>	-3,70	-6,16	-1,24	0,003
	<i>2020-2021</i>	-	-	-	-
Graduak	<i>Erizaintza</i>	-3,94	-7,82	-0,07	0,046
	<i>Medikuntza</i>	-5,25	-9,10	-1,40	0,008
	<i>Fisioterapia</i>	-	-	-	-
Bizi ohituren eremua					
Kontaktua eta ikuspegiaren eremua					
Haurtzaroko ikuspegia	<i>Oso ona</i>	9,42	1,38	17,45	0,022
	<i>Ona</i>	5,09	-2,91	13,09	0,213
	<i>Txarra</i>	-	-	-	-

β :koefizientea; KT:konfidantza tarte; BM:beheko muga; GM:goiko muga
Eredu lineal orokortua. Kontrol aldagaiak: sexua, adina, ikasturtea eta gradua

4. Ondorioak

Adinekoen aurkako diskriminazioa aztertzea eta estereotipo negatiboekin eta aurreiritziekin erlazionatzen diren faktoreak identifikatzea oso garrantzitsua da, batez ere etorkizunean zahartze prozesuan dauden populazioekin zuzenean lan egiten duten lanbideetan, osasun arloko ikasleen kasuan esaterako.

Osasun zientzietako ikasleetan ikusi zen estereotipo negatibo eta aurreiritzien presentzia txikia zela. Estereotipo negatiboen maila desberdina da hiru graduen artean, nahiz eta hiruretan ikusi zen estereotipo negatiboen presentzia txikia. Aurreiritzien maila, berriz, antzekoa izan zen hiru graduetan.

Osasun zientzietako ikasleek zituzten estereotipo negatiboak ikasleen gradu, adinekoen kontaktu mota eta adinekoekiko gaur egungo ikuspegiarekin erlazionatzen ziren. Aurreiritziak, berriz, ikasturtea, gradua eta adinekoekiko haurtzaroko ikuspegiarekin erlazionatzen ziren.

Emaitza hauek onuragarriak izango dira osasun zientzietako ikasleentzat, etorkizuneko osasun profesionalentzat, adinekoentzat eta gizartearentzat, etorkizunean hezkuntza inklusiboagoak garatzeko oinarri izan ahal direlako eta horrek adinkeriaaren presentzia murriztea.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Lan honen emaitzak eta ikerketaren helburuak kontuan izanda, hainbat erronka eta jarraitzeko bide planteatu daitezke, bai ikerketaren eremuan eta baita gizartean ere.

1) **Zahartzaroaren inguruko estereotipo negatibo eta aurreiritzien gutxitzea.** Funtsezkoa da zahartzaroaren inguruko estereotipo negatiboak eta aurreiritziak murrizteko hezkuntza eta prestakuntza programak indartzea UPV/EHUko gradu desberdinetan, baita osasun zientzietako ikasleen artean ere.

2) **Belaunaldien arteko kalitatezko harremana eta kontaktu intergenerazionala areagotzea.** Osasun-zientzietako graduen artean, praktiken bidez ematen diren kontaktu intergenerazionalaren kalitate hobetzea, baita ikasleen eguneroko esperientzian adinekoekin dituzten harremanak areagotzea.

3) **Ikasleei eguneroko bizitzan ohitura osasungarriak sustatzea.** Bizi ohitura osasungarriak bizitzan zehar mantentzen dituzten pertsonen autopertzepzio hobetza izango dute eta horren ondorioz ikuspegi positiboagoa bizi zikloko edozein arotan.

6. Erreferentziak

- Aristizábal, N., Morales, A., Salas, B., & Torres, A. (2009). Estereotipos negativos hacia los adultos mayores en estudiantes universitarios. *Cuadernos Hispanoamericanos De Psicología*, 9(1), 35-44.
- Butler, R. (1969). Age-ism: Another form of bigotry. *The Gerontologist*, 243-246.
- Chang, E., Kanno, S., Levy, S., Wang, S., Lee, J., & Levy, B. (2020). Global reach of ageism on older persons' health: A systematic review. *PloS One*, 15(1), e0220857.
- Craig, C., Marshall, A., Sjöström, M., Bauman, A., Booth, M., Ainsworth, B., Sallis, J. (2003). International physical activity questionnaire: 12-country reliability and validity. *Medicine & Science in Sports & Exercise*, 35(8), 1381-1395.
- Cedillo-Ramírez, L., Correa-Lopez, L. E., Vela-Ruiz, J. M., Perez-Acuña, L. M., Loayza-Castro, J. A., Cabello-Vela, C. S., . . . Jhony, A. (2016). Estilos de vida de estudiantes universitarios de ciencias de la salud. *Revista De La Facultad De Medicina Humana*, 16(3), 57-65.
- De Araújo, P., Sampaio Costa Soares, I., Lima Falcao do Vale, P., Reis de Sousa, A., Casado Aparicio, E., & Souza de Santana Carvalho, E. (2023). Edadismo contra las personas mayores en servicios de salud: Revisión de alcance. *Revista Latino-Americana De Enfermagem*, 31, e4019.
- Dong, X., Milholland, B., & Vijg, J. (2016). Evidence for a limit to human lifespan. *Nature*, 538(7624), 257-259.
- Duran-Badillo, T., Miranda-Posadas, C., Cruz-Barrera, L., Martínez-Aguilar, M., Gutiérrez-Sánchez, G., & Aguilar-Hernández, R. (2016). Estereotipos negativos sobre la vejez en estudiantes universitarios de enfermería. *Rev Enferm Inst Mex Seguro Soc*, 24(3), 205-209.
- Eustat. [Http://Eustat.eus](http://Eustat.eus). Panorama demografikoa 2022. Berreskuratua 2025eko urtarrilaren 8a https://eu.eustat.eus/elementos/ele0020100/panorama-demografikoa/inf0020130_e.pdf
- Franco, S., Villarreal, R., Vargas, D., Martínez, G., & Galicia, R. (2010). Prevalence of negative stereotypes towards old age among personnel of a general hospital. *Revista Médica De Chile*, 138(8), 988-993.
- Irazusta-Astiazaran, A., Ruiz-Litago, F., Gil-Orozco, S., Gil-Goikouria, F. J., & Irazusta-Astiazaran, J. (2005). Hábitos de vida de los estudiantes de enfermería. *Zainak*, 27, 99-107.
- Kagan, S., & Melendez-Torres, G. (2015). Ageism in nursing. *Journal of Nursing Management*, 23(5), 644-650.

- Kaplan Serin, E., & Tülüce, D. (2021). Determining nursing students' attitudes and empathic tendencies regarding aged discrimination. *Perspectives in Psychiatric Care*, 57(1).
- Makris, U., Higashi, R., Marks, E., Fraenkel, L., Sale, J., Gill, T., & Reid, M. (2015). Ageism, negative attitudes, and competing co-morbidities—why older adults may not seek care for restricting back pain: A qualitative study. *BMC Geriatrics*, 15, 1-9.
- Losada Baltar, A. (2004). Edadismo: Consecuencias de los estereotipos, del prejuicio y la discriminación en la atención a las personas mayores. Algunas pautas para la intervención. *Informes Portal Mayores*, 14.
- Marcos, L. (2007). Modificaciones de los estereotipos sobre los mayores. Paper presented at the Comunicación E Persoas Maiores: *Actas do Foro Internacional & NBSP*; 29-46.
- Naciones Unidas. [Http://european-union.europa.eu](http://european-union.europa.eu). Berreskuratua 2025eko urtarrilaren 9a <https://www.un.org/es/global-issues/ageing>
- Naciones Unidas. [Http://european-union.europa.eu](http://european-union.europa.eu). Berreskuratua 2025eko urtarrilaren 8a <https://www.un.org/es/global-issues/population>
- Pérez Díaz, J., Ramiro Fariñas, D., Aceituno Nieto, P., Escudero Martínez, J., Bueno López, C., Castillo Belmonte, A., & Villuendas Hijosa, B. (2023). Un perfil de las personas mayores en España, 2023. Indicadores estadísticos básicos. Madrid, Informes Envejecimiento en red n° 30, 40p. <http://envejecimiento.csic.es/documentos/documentos/enred-indicadoresbasicos2023.pdf>
- Rello, C., López Bravo, M., & Muñoz Plata, R. (2018). Estereotipos sobre la edad y el envejecimiento en estudiantes y profesionales de ciencias de la salud. *Revista Prisma Social*, (21), 108-122.
- Sarabia Cobo, C., & Castanedo Pfeiffer, C. (2015). Changing negative stereotypes regarding aging in undergraduate nursing students. *Nurse Education Today*, 35(9), e60-e64.
- Schröder, H., Fitó, M., Estruch, R., Martínez-González, M., Corella, D., Salas-Salvadó, J., . . . Covas, M. (2011). A short screener is valid for assessing Mediterranean diet adherence among older Spanish men and women. *The Journal of Nutrition*, 141(6), 1140-1145.
- Sequeira Daza, D., & Silva Jiménez, D. (2016). Estereotipos sobre la vejez en estudiantes y docentes de la Facultad de Ciencias de Salud, Universidad UCINF. *Akademía*, 7(1), 103-119.